

GUGGENHEIM BILBAO



Henri de Toulouse-Lautrec

Moulin Rouge, La Goulue eta bere ahizpa (Au Moulin Rouge, La Goulue et sa sœur), 1892

Koloretako litografia

46,1 x 34,8 cm

“Zementu armatua baino aurpegi gogorragoa duena Lautrec da: ez du inolako kontenplaziorik, ez marrazkian, ez kolorean. Zuria, beltza eta gorria plantxetan, forma sinpleak; eta kito. Inork ez bezala jasotzen ditu agure lizun aberats okituak, urdanga losintxariekin eserita, sosak ateratzeko haiek limurtzen aritzen direnak... Bere trebezia, lotsagabekeria eta sarkasmoa itzelak dira”[1].

Henri de Toulouse-Lautrec artistak (Frantzia, 1864—1901) sortzetiko gaixotasun bat zuen, eta haren ondorioz, nerabezaro garaian hausturak izan zituen bi hanketako hezurretan.

Tratamenduak mingarriak izan ziren oso, eta denboraldi luzeak pasatu zituen ohean; hala ere, hausturak ez ziren behar bezala sendatu. Gaixondoan ezin zuen ia jarduera fisikorik egin; horregatik, Toulouse-Lautrec oso goiz murgildu zen pinturan eta marrazkigintzan. Gaztetan, zaldiak izan ziren haren gairik gogokoena. Askotan lagundu ohi zuen bere aita zaldi-lasterketatara, eta bizi osoan mantenduko zuen grina garatu zuen hipikarekiko. [2] Bere

GUGGENHEIM BILBAO

hanken hazkuntza behar baino lehenago eten zen eta, ondorioz, proportzio normaletako gorputz-enborra bazeukan ere, hanka oso laburrak zeuzkan, eta mugikortasuna zailtzen zioten.

1884ean Montmartrera joan zen bizitzera, Pariseko auzo bohemiora alegia. Bertan, gaueko bizitza sutsu eta dekadentean murgildu zen, eta inguruetan ibili ohi ziren aberatsak ezagutu zituen, eta baita langile eta artistak ere. [3] Asalduzko garai gorabeheratsua zen, eta Pariseko kultura-agertokia transformatuko zuten aldaketa sozial, politiko, industrial eta zientifikoek baldintzatu zuten. Orduko artistek mugimendu berritzaile askoren sorkuntzan lagundu zuten: mugimendu horien lekuko eta bultzatzaile izan ziren. Toulouse-Lautrec bere garaiko gizartearen ordezkari zen, errealismo garrantzaren eta satiraren artean zegoen estiloarekin. Bere xarmarik handiena, ziur asko, mende amaierako Pariseko gauetako pertsonaia ezagunak erretratatzeko gaitasuna izan zen. [4]

1885erako bere auzoko gaueko bizitza libertinoaren pintore bilakatu zen, eta bere lanetan sartu ohi zituen aretoetako, kafe-kontzertuetako eta putetxeetako bezeroak. Inguruko kabaretetan ohiko bisitaria izan zen, eta goi mailako klaseetako jarduera heterodoxo eta alaiak betikotzeaz gain, klase horiek bilatzen zuten entretenimendu frenetikoak ere jaso zuen, bai eta areto horietan lanean ari ziren behe mailako klaseetako pertsonen bizitza tragikoak ere.

1889an, Montmartreko Moulin Rouge kabaret famatuak ateak ireki zituenean, Lautrecek kabareteko publizitate-kartel sorta sortzeko enkargua jaso zuen. Arratsaldero joan ohi zen espektakulua ikustera eta, izkina batean eserita, dantzariak eta bezeroak marrazten aritzen zen.[5] Bere kartekek Montmartreko aktoreak artista ezagun bezala irudikatzen zituzten, eta **litografia** publizitarioa arte kategoriara jasotzea lortu zuten. Bere Moulin Rougeko pertsonaien estanpek kabareta betetzen zuten pertsonen izpiritua, tristezia eta xarma erakutsi zuten.

Moulin Rougen bertan ezagutu zuen, gainera, kafe-kontzertuetako bere izarrik gogokoenetako bat: Louise Weber, *La Goulue* ezizenez ezaguna ("tripontzia"); mahaian nahiz bizitzan erakusten zuen apetiuren ondorioz jaso zuen goitizena. La Goulue anbizio handiko emakumea zen, eta kankan [7] dantzari gisa erakusten zuen trebeziagatik zen ezaguna. Energiaz betetako dantza zen kankana, eta esfortzu fisiko handia eskatzen zuen; gizarte "errespetagarriarentzat", ordea, eskandaluzkoa eta desegokia suertatzen zen. Dantzariak, oldartsu, parpailadun pololoak erakusten zituzten orduko galtzerdi beltzen gainean, kontraste agerikoan. Espektakulu bero gisa zeukan ospea gorabehera, kankana dantzalekuetako dinamismoaren eta gehiegikeriaren sinbolo bilakatu zen.

Moulin Rougen, la Goulue eta bere ahizpa (1892) litografian La Goulue ikus dezakegu kabaretean bere ahizparekin, bertako giro eta gizonei begira. La Gouluek soineko eskotatua, orrazkera deigarria eta lepoko beltz estu bat daramatza. Bere itxura xelebrenari esker, Lautrecek atzetik aurkeztu zezakeen, silueta nahikoa baitzen hura ezagutzeko. [8] Era berean, artistak bere modeloen ezaugarri nagusiak erabili ohi zituen beren nortasunen barne-

GUGGENHEIM BILBAO

barnekoa jasotzeko, egiten zituen interpretazio estilizatu eta sinplisten bitartez. [9]

Galderak

Begiratu arretaz litografia. Zer ikusten duzu? Deskribatu ahalik eta zehaztasun gehien erabilia. Non uste duzu daudela pertsona hauek? Hasieran ikusi ez duzun zein zehaztasun ikusi duzu beranduago? Nola kalifikatuko zenuke estampa honetako giroa?

Paris hiri ezaguna zen entretenimendurako eta gaueko bizitzarako eskaintzen zituen aukerengatik, baina gizarte-gatazka askoren agerleku ere bazen. Aristokratak, dantzariak eta langileak nahasi egiten ziren Montmartreko kale eta kafeetan. Nolako uste duzu izango litzakeela garai hartako Parisen bizitzea? Gustatuko litzaizukeela uste duzu? Zure iritziz, zergatik zen hain dinamikoa garai hartako agertoki artistikoa?

Irudi honetan hainbat figura ikus daitezke. Lehen planoan agertzen diren bi emakumeetan jarriko dugu arreta: zer jakin dezakegu beraien inguruan beren pose, itxura eta janzteko moduei erreparatuta? Nortzuk izan daitezke? Zer uste duzu ari direla egiten? Orain, erreparatu gainontzeko figurei: zertan ari direla uste duzu?

La Goulue kankan dantzari ezagun bat izan zen, Pariseko Moulin Rouge kabaretean aritzen zena. Ikusi edo entzun duzu inoiz kankanaz zerbait? Ikusi 1952ko *Moulin Rouge* filmaren zati hau: <https://www.youtube.com/watch?v=exrcnq6Uac4>

La Goulue filmeko dantzariak bezalakoa zen. Gustatuko litzaizuke bere saio batera joatea? Zergatik bai, edo zergatik ez? Kankana eskandalagarria zela uste zuten askok, eta debekatzen saiatu ziren denbora batez. Zergatik uste duzu zela hain polemikoa?

Behin filmeko zatia ikusita, uste duzu Lautrecek kabareteko atmosfera islatzea lortu zuela? Moulin Rougeko publizitate-kartelak ere sortu zituen artistak. Bilatu Google-en irudiak eta erabaki zein duzun gustukoen. Zergatik aukeratu duzu? Zer ikas dezakezu mende amaierako Paris hartaz, Lautrecen kartelak aztertuz gero?

Jarduerak

Sortu antzerki-kartel bat

Henri de Toulouse-Lautrecek kartel asko egin zituen Moulin Rouge aretorako. Ekin zure proiektuari bere lanak aztertuz. Begiratu arretaz bere kartelak eta gogoan hartu beraien artean dauden desberdintasunak.

Gero, pentsatu, Lautrec bezala, margolaria zarela, eta zure hirian espektakulu berri baterako kartela egitea eskatu dizutela. Aukeratu gogoko duzun edo ezagutzen duzun areto bat, eta bilatu zein espektakulu-mota egiten duten bertan. Zein estilo artistiko erabili dituzte beren promoziorako karteletan?

GUGGENHEIM BILBAO

Orain, aukeratu areto horretan gustura ikusiko zenukeen espektakulu bat. Edozein motatakoa izan daiteke: dantza, kontzertua, antzezlan, artea edo txotxongiloak. Bat aukeratzen duzunean, sortu promoziorako kartel bat. Ez ahaztu kartel horietan espektakuluaren datu batzuk agertu ohi direla. Gero, jarri ikusgai kartela ikasgelan.

Idatzi La Goulue eta bere ahizpari buruzko idazlan bat

Sortu kontakizun labur bat edo poema bat, edo egin marrazki bat, La Goulue eta bere ahizpak bizitzaren inguruan; zer egingo lukete? Nora joango lirateke? Zer gertatuko litzateke Moulin Rougetik ateratzerakoan?

Aztertu Toulouse-Lautrecek inspirazio gisa erabili zuen arte japoniarra

Lautrecek arretaz begiratzen zien kabareteko artista eta bezeroei margotu baino lehen, baina ez zituen horien irudikapen errealistak egiten; aitzitik, XVIII. eta XIX. mendeetan Japonian arrakasta handia zuen *ukiyo-e* japoniar estanpatik gertu zegoen estiloari jarraiki egiten zituen marrazkiak. Gainera, Toshusai Sharaku artista japoniarra izan zuen inspirazio iturri: kabuki antzerki tradizionaleko aktoreen grabatuak egin zituen hark, eta haien espresioak modu esageratuan islatzen zituen, estilo sintetiko batekin. Sharakuren konposizioek gorputz-jarreraren dinamismoa eta energia indartzen dute, garai hartako estanpetan ohikoa ez zen errealismoz. *Ukiyo-e* grabatuetako edertasun idealizatu tipikoaren ordez, Sharakuk aurpegiera antiestetikoak goratzen zituen, sudur handiak edo aktore zaharren zimurrak kasu.

Lautrecek modu sinplistan marrazten zituen modeloak, eta *ukiyo-e* grabatu japoniarretako figurak gogorazten zituen. Pertsonaiak, sarritan, beren jarrera, orrazkera edo jantzi bereziei esker ezagutu daitezke, baina ez daude errealismoz irudikatuta. [10]

Ikertu *ukiyo-e* estiloa eta Toshusai Sharaku artista japoniarraren lana, eta alderatu Lautrecen *Moulin Rougen, la Goulue eta bere ahizpa* kartelarekin. Zein berdintasun eta desberdintasun antzeman dezakezu? Idatzi idazlan labur bat zure ondorioekin. Hurrengo estekan *ukiyo-e* irudiak eta Toshusai Sharakuren grabatuak ikus ditzakezu hemen: <https://ukiyo-e.org/>

Hiztegia

Litografia: inprimatze-prozedura bat da, harrizko edo metalezko plaka bat erabiltzen duena; plaka horretan, irudiaren eremu batzuk tinta atxikitzen duen substantzia koipetu batez bustitzen dira, eta artean, zuriz mantendu nahi diren eremuei tinta uxatzeko tratamendua ezartzen zaie.

Ukiyo-e: “mundu flotatzaileko irudiak” esan nahi du hitz honek, eta Japonian XVIII. eta XIX. mendeetan asko landu zen genero artistiko bati egiten dio erreferentzia. Artistek xilografaiak

GUGGENHEIM BILBAO

edo grabatuak sortzen zituzten zur gainean, baita pinturak ere; horietan honako hauek irudikatzen zituzten: edertasun femeninoak, kabuki antzerkiko aktoreak eta sumoko borrokariak, eszena historikoak eta istorio herrikoiak, bidaietako eszenak eta paisaiak, loreak eta animaliak, eta irudi erotikokoak.

Oharrak

[1] Felix Fénéon, *Le Père Peinard*, 1893ko apirilak 30. Jatorrizko testua (frantsesez): « Un qui a un nom de dieu de culot, mille polochons, c'est Lautrec: ni son dessin ni sa couleur ne font des simagrées. Du blanc, du noir, du rouge en grandes plaques, et des formes simplifiées, — voilà son fourbi. Y en a pas deux comme lui pour piger la trombine des capitalos gagas attablés avec des fillasses à la coule qui leur lèchent le museau pour les faire carmer. » Haplerin, Joan U., *Félix Fénéon: Œuvres plus que complètes*, 2 vol. (Geneva/Paris : Droz: 1970), 230. or.

[2] Vivien Greene (arg.), *Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak*, erakusketako katalogoa, Bilbo: Guggenheim Bilbao Museoa, 2017.

[3] Vivien Greene (arg.), *Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak*, erakusketako katalogoa, Bilbo: Guggenheim Bilbao Museoa, 2017.

[4] *Paris, mende amaiera: Signac, Redon, Toulouse-Lautrec eta garaikideak*, erakusketako entzuteko gida.

[5] <http://www.moulinrouge.fr/vedette/henri-de-toulouse-lautrec?lang=en>

[6] http://www.metmuseum.org/toah/hd/laut/hd_laut.htm

[7] <https://www.moma.org/collection/works/62785>

[8] <https://www.moma.org/collection/works/62785>

[9] http://www.metmuseum.org/toah/hd/laut/hd_laut.htm

[10] <https://www.moma.org/collection/works/62785>